

G


ASTIGARRAGA

Sagardoetxea Sagardoaren Museoa



Sagardoetxea

Kale Nagusia, 43
20115 ASTIGARRAGA
☎ 943 550 575
Faxa: 943 331 311
Info@sagardoetxea.com
www.sagardoetxea.com



Sagardoetxea

Sagardoetxea sagarra, sagarrondo eta sagardoaren kultura zabaltzeko museo gune bat da. Museoen kontzeptu tradizionaletik desberdina da, sagarrondoan bizitza eta sagardoaren elaborazio prozesua modu aktiboan ezagutzeko aukera ematen duen leku dinamikoa baita, gauzak ikusiz, jardueretan parte hartuz eta produktu ezberdinak dastatuz.

Sagardoetxeak museoko sagasifra eta museo-gunera bisitaldiki eskaintzen dizkie bisitariari. Museoko sagastian sagardo egileen teknika eta sekretuak aurkituko dituzte eta sagarrondo, hazitegi, sagar mota desberdin eta aintzinako tolare baten bueltan ibiliko dira. Museo-gunean, berriz, sagarra eta sagardoaren historia, usadioaren iturburua, erramintak eta elaborazio prozesua aurkituko dituzte, sagardoaren kulturara gerturatuz.

Beste jarduerak

Astigarragak egun pasa osatzeko aukera ezberdinak eskaintzen ditu: pilotaleku estalia, igerilekua, aire librean bazkaltzeko guneak, Santia-gomendiko Natur Eskola, etb...

hik hasi 14

Material didaktikoa

Sagardoetxean ahalegin handia egin dugu sagarraren kulturaren gaineko material didaktikoa osatzeko:

- 1) Sagardoaren Histegia: sagardogintzaren inguruko 500 hitz biltzen ditu.
- 2) Sagarrekin Jolasean: sagarraren kulturaren inguruko bost liburuxka dira, adin-tarte bakoitzera egokituak (bista burutu ostean talde bakoitzari banatuko zaio).
- 3) Muztioa egiteko tresneria: bisitariak sagardoaren elaborazio prozesu osoan parte-hartzeko.
- 4) Lau modulutako laborategia: joko, puzzle, irudi, etb... en bidez urtaro bakoitzean jarduera ezberdinak egiteko.

Jardueren egutegia

Urte osoan zehar:

- Dasti ipuin-kontalaria: haurrentzako ipuin moduko bisita gidatua.

Neguan: landaketa garaia

- Arbolak aldatu / hazien erelitea.
- Sagarrondoan formazioa.
- Txertaketak.

Udaberrian: sagastiak loretan

- Polinizazioa: erleen lana, ezti dastaketa eta loretik fruiturako prozesu guztia ikusteko aukera.
- Sagarrondoan izurrite eta gaitzak.

Udaran: sagarrak zuhaitzetan

- Inausketa: ilargiaren eragina udarako inausketan.
- Aisialdi taldeentzako jarduera bereziak: sagarrekin, sagardogintzarekin eta ingurugiroarekin loturiko jolasak, elkarrekintza eta ingurugiroa hizketa lantzeko.

Udazkenean: sagarren bilketa

- Sagarra heldua dagoenean bildu, sagar ezberdinak dastaketa eta aintzinako elaborazio prozesua: sagarra pisioekin jo, zanpatu eta loturiko muztioa dastatu.



HISTORIA ETA ARTEA

hik hasi 15